

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2012ko martxoaren 23a. IX. urtea. 2.382. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Ezkerretik eskuinera, Hartsuaga, Sarasola, Barrenetxea, Hartsuaga eta Urretabizkaia Udaberriko kideak. I. URKIZU

Erromeria giroa zabalduko du, beste behin, Udaberrik

Tolosako dantza taldeak dantzari txiki eta erromeria eguna antolatu du hilaren 31rako; 350 bat haur ariko dira egunean zehar kaleak alaitzen eta iluntzean zabalduko dira euskal dantzak Zerkausiko festara **02**

Hainbat enpresa esanguratsutako langileek bat egin dute grebarekin

Oraindik erabakia hartu ez duten lantokietako beharginei lanuztearen alde egitera deitu dituzte Tolosaldeko LABek eta ELAk **03**

Ikaztegietako bi gazte bikain ari dira disko jaurtiketan

Arraigak duela hiru urte Gipuzkoako errekorra jarri zuen kadete mailan, eta Mendizabalek hiru metrotan hobetu du herrikidearen marka **06**

I. Gazte Eguna ospatuko dute, bihar, Zizurkil Goian

Iaz erabaki zuten Txepetxa Gazte Asanblada sortzea, eta bihar egingo dute aurkezpena **04**

Beira birziklatzeko gonbita egingo dute Alegian

Tolosaldeko Mankomunitateak informazio mahaia jarriko du gaur, ikastetxean **07**

Eredu berri baten alde egingo du Tolosa Zero Zaborrek

Sortu berri den taldeak herritarrei informazioa banatuko die; apirilaren 18an bilera egingo dute **02**

Larunbatetik igandera, ordu aldaketa



DAGOENeko 56.000 LAGUN ALDATU DIRA BIZITZAREN ALDE SIMPLE-RA. ETA ZU?

TELEFONIA MUGIKORRA ALDATU EGIN DA **SIMple**

5 ZENT. / MIN NOIZNAHE NOIZNAHEIL BETI.

Kalkulatu zure zuzena: www.euskaltel.com

logika line
San Pelayo, 39
Tolosa

euskaltel Benetako ofiziala

↓ Kirol jarduera**OSTIRALA****SASKIBALOIA**

19:30. Nazional maila, Bide Bide-Askartza.

ARETO FUTBOLA

20:30. 3. maila, Laskorain-DPO.

LARUNBATA**SASKIBALOIA**

09:00. Infantil mutilak, T. Bedaio-Oiartzun.

10:30. Infantil mutilak, T. Oria-Internacional; infantil mutilak T. Aldaba-Easo 98; kadete mailako neskek, T. Urkizu-Lezo.

12:00. Kad. mutilak, T. Tovar-BKL.

18:00. Senior mutilak, T. Orbela-Zast.

ARETO FUTBOLA

09:30. Inf., Laskorain-Arizmendi.

10:30. Junior mut., Laskorain-Goierri.

16:00. Senior mut., Laskorain-Yone bouti.

18:00. Nazional maila, Laskorain-Kirol Sport.

ESKUBALOIA

12:00. Infantil mailan, Tolosa-Leizaran.

FUTBOLA

09:30. 1. kadete mutilak, Tolosa CF-Beasain.

10:30. Kadete neskek, Tolosa CF-Zumaiako.

12:30. Lehen mailako infantil mutilak, Tolosa CF-Intxurre.

15:30. Senior neskek, Tolosa CF-Real Union.

17:30. Ohorezko jubenil mailako mutilak, Tolosa CF-Mariño.

MAHAI TENISA

11:30. Oargi-Orereta

IGANDEA**SASKIBALOIA**

09:30. Mini neskek, Take-Hondarribi (bi partida jokatuko dituzte).

12:30. Senior neskek, Aralar-Erroibide.

350 dantzari txikiren jaiari erromeriak jarraituko dio hilaren 31n, Tolosan

Udaberri dantza taldeak antolatuta, euskal dantzak eta musikak kaleak girotuko dituzte hileko azken egunean

Imanol Garcia Landa

Datorren martxoaren 31n, urteroko dantzari txiki eta erromeria eguna izango da Tolosan, Udaberri antolatuta. 2007ko 50. urteurren girotzeko, eta euskal dantza eta musika herritarrei gerturatzeko asmoz, Udaberri dantza taldeak orain dela 8 urte antolatu zuen lehenengoz erromeria. Bere hastapenetan, Abastos eraikinean izaten zen afaria, eta taldeko kide nahiz kide ohiek parte hartzen zuten. Urteen poderioz, ordea, indarra hartzen joan den festa dela azaldu dute Udaberriko kideek, eta azken hiruzpalau urtetan, 120 lagun inguru bildu izan dira Zerkausion afaltzen.

Dantzari txikiarekin, berriz, urte bete beranduago hasi ziren, belaualdi gazteenek kalean dantza egin zezaten, beste herrietako dantzari txikiarekin batera. Aurten, martxoaren 31n izango da hitzordua.

Udaberri dantza taldearen ibilbide luzean, hasiera-hasieratik,



Udaberri dantza taldeko kideak, ekitaldien aurkezpena egiten. I. URKIZU

«euskal kultura ezagutzeko, berreskuratzea, zaintzea eta zabaltzea funtsezko kontzeptuak» izan direla diote antolatzaileek. Horrela beraz, helburu hauek egungo errealitateari egokituz, bi ekitaldiak, erromeria eta dantzari txiki-festa, bateratzea otu zitzaiz.

Dantzari txikien jai erraldoia

Gaztetxoaren festa goizean goiz hasiko da, urteroko moduan. 11:00etan, Plaza Zaharrean elkartuko dira Euskal Herri osoko txokoetatik etorritako dantzariak, Tolosakoekin batera. Gipuzkoatik, Errenteriako Ereintza dantza taldea etorriko da; Bizkaitik, Gal-

dakaoko Andra Mari; Araba alde-tik, berriz, Eguzkilore eta Adurtza talde gasteiztarrak izango ditugu gurean, eta Hendaia-ko Ake-larre dantza taldeak ordezkatu du Ipar Euskal Herria.

Guztira 350 neska-mutil ibiliko dira goizeko kalejiran. Batzuk Alde Zaharreko kaleak girotuko dituzte, eta besteak, berriz, San Frantzisko pasealekuko inguruetan ariko dira dantzan. Eguerdian, Plaza Berrian elkartuko gero, haur guztiek Tolosako eta inguruko elkarrekin bazkalduko dute. Modu honetara, dantza taldeetako gazteetako elkar ezagutzeko aukera izango dute. Uda-

berriko arduradunek, bazkarirako ikasleen gurasoek eskaini diten laguntza eskertu nahi izan dute. Arratsaldean, emanaldia izango da Plaza Berrian, eta talde bakoitzak 10 minutuko saioa eskainiko die bertaratu. Eguraldi txarra egiten badu, aipatutako jarduerak Hirukide Jesuitinen frontoian egingo dituzte.

Dantzarako aukera

Iluntzean, helduen txanda iritsiko da triki-txaranga-poteoarekin. 19:45ean elkartuko dira Plaza Zaharrean, eta Alde Zaharreko kale-etan barrena ibiliko dira, plazaz plaza geldialdiak eginez. 21:30ak inguruan, afaria izango da Zerkausion. Afarirako txartelak Orbela, Raku, Ikatz eta Denak tabernetan daude eskuragarri 16 euroren truke, eta hilaren 30a izango da hauek erosteko azken eguna. Udaberriko kideek, erromeriara bertaratzeko direnei euskal jantzi tradizionalak janzteko deia egin diete, «erromeria giroa are hobea izan dadin».

Afalondan Emepebost erromeria talde eibartarrak girotuko du Zerkausia; oinak eta eskuak astintzeko ueña iritsiko da. «Herritar guztiak animatu nahi ditugu, euskal giroan larunbat iluntze eta gaua pasa ditzaten», nabarmendu dute antolatzaileek.

Tolosa Zero Zabor taldea sortu dute

Ez dator bat egungo hondakinen kudeaketa sistemarekin, eta «irtenbide alternatibo bat» bilatu nahi du

I. Garcia Landa

Tolosa Zero Zabor taldeak bere ibilbidea hasi du, «egun hondakinekin dugun arazo larriari» aurre egiteko asmoz. Gaur egungo hon-

dakinen kudeaketa sistemarekin ez datorrela bat esan du taldeak, eta «irtenbide alternatibo bat» bilatu nahi duela esan du. Taldearen ustez, «egungo kudeaketa okerrak jasangarritasun bidean joan ordez, aurkako noranzkoan garrantzitsu, arazoa are eta gehiago larriagotuz». Tolosa Zero Zabor taldearen helburua «arazo horri irtenbide bat ematea» da, horretarako «tolosar guztiak inplikatu». Taldeak esan duenez, «gu gara arazo hau sortu dugunak, eta ardura beste batzuei bota beharrean, guk aurkitu behar ditugu dagozkion irtenbideak».

Helburuak lortzeko, talde sortu berriak zero zabor programa proposatzen du. Horren arabera, erabilitako produktuak ustiatu ondoren, irtenbidea eman behar zaie, zaborrik ez sortzera heldu arte. Programa horretan hiru ildo jarraitzen dituzte: murriztea, «hondakinik onena sortzen ez dena baita»; berrerabilpena, «produktuaren bizitza luzatzea ahalbidetzen baita hondakinak sortzeaz utziz»; eta birziklapena,



Tolosa Zero Zabor taldeko zenbait kidek agerrialdia egin dute. I. URKIZU

«sortu ditugun hondakinek jasotzen duten tratamendua zabor bihur ez daitezen».

Tolosa Zero Zabor taldeak azaldu duenez, egoerari aurre egiteko, «arazoaren inguruan kontzientziarazioa eta inplikazioak beharrezkoak dira». Gaiari «errotik» heldu behar zaioela esan dute,

eta horretarako «denon partaidetza» garrantzitsua dela gaineratu dute. Gaiaren inguruan herritarrei «informazioa zabaldu, parte hartzea eskatu eta laguntza eskaini» nahi dietela esan dute. Horretarako, besteak beste, apirilaren 18rako bilera informatiboa antolatu dute.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Dagoeneko hainbat enpresa esanguratsutan greba egitea erabaki dute

Oraindik erabakirik hartu ez duten enpresetako langileei, grebarekin bat egiteko eskatu diete sindikatuek

Enertiz Maiz

LAB eta ELA sindikatuek, greba orokorra dela eta, eskualdeko enpresetan burutzen ari diren batzarren emaitzak jaso dituzte. Ziur daude greba orokorrak jarraipen «arrakatsua» izango duela, dagoeneko Tolosaldeko hainbat enpresa esanguratsutan lanuztea egitea erabaki baitute. Oraindik erabakirik hartu ez duten enpresetako langileei grebarekin bat egitea deitu dituzte.

Itxiera orokorra izango dela aurreikusten dute bi sindikatuek. Greba orokorraren egunean, jendea kalera irten eta deituta dauden mobilizazioetan parte hartzea duen garrantziaz jabetzea nahi dute: «Aurrean dugun erroka ez da nolanhikoa, eta taimainako erantzuna eman nahi badiogu, ezinbestekoa zaigu egun horretan kaleetan egingo den argazkia parekoa izatea». Sindikatuek gaineratu dutenez, «beharrak da mobilizazioak ikusgarriak izatea, gure mezua ozen eta garbi zabaltzeko».



LABeko eta ELAko ordezkariek langileei greba egiteko eskatu diete. HITZA

↓ Grebarekin bat egin duten zenbait enpresa

- Munksjo Paper (Eldua).
- Tolosako Udala.
- Guibe tailerra (Irura).
- Etxesa (Asteasu).
- Bost tailerra (Asteasu).
- Unipapel (Aduna).
- Papelera Aralar (Amezketeta).
- Perot (Asteasu).
- Orbinox (Anoeta).
- Inviza (Tolosa).
- Insalus (Lizartza).
- Pasaban (Tolosa).
- Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza egunkaria (Tolosa).
- Urbar Ingenieros (Asteasu).
- Antilas (Tolosa).
- Laskorain Ikastola (Tolosa).
- Jesusen Bihotza Ikastola (Amasa-Villabona).
- Yurramendi (Tolosa).
- Zizurkilgo Udala.
- Ibarra Argi Lanak (Ibarra).
- Leibi (Asteasu).
- Man (Ikaztegieta).
- Cadinox (Belauntza).
- SAM (Tolosa).
- Corenso (Elduain).
- Borobil (Villabona).
- Circasa (Ibarra).
- Casa Eceiza (Lizartza).

Irudia ◊ Tolosa



ELKARBIZITZA SUSTATZEN

Tolosako Samaniego ikastetxeko hezkuntza komunitateak irteera antolatu zuen aurreko igandean elkarbizitza sustatzeko helburuarekin. Bi autobus bete zituzten, guztira 130 lagun elkartuz. Larraitze-ira iritsitakoan talde bat Auza Gaztelura abiatu zen bitartean, besteak Abaltzisketako bidea hartu zuten. Auza Gazteluko tontorra egin ondoren, guztiek elkarrekin bazkaldu zuten Abaltzisketan. HITZA

Javier Reverte bidaiari eta idazlea, Amalur jardunaldien azken egunean

‘Yukon: el río de la luz’ izeneko hitzaldia emango du, gaur, Tolosako Topic zentroan, 19:30ean

Erredakzioa Tolosa

Jack Londonen arrastoari segiz, Javier Reverte bidaiari eta idazlea Kanada eta Alaskako eremu basatietara bidaia egiteko proposamena luzatuko du, gaur, Tolosako Topic zentroan, 19:30ean. Aurtengo Amalur jardunaldien azken hitzaldia izango da, ‘Ur bi-deak’ izenekoa.

Revertek *Yukon: el río de la luz* hitzaldia emango du, eta antolatzailen esanetan, «toki mitiko bat deskubrituko dugu, bidaia-irudimena pitzen duten istorioen oihartzunez bete». Ibaian 750 kilometrotik gorako nabigazioa osatu zuen Revertek, eta bidaia bizipenak kontatuko ditu.

Tolosako Esperientzia Eskola martxan abian jarriko dute aurki

50 urtetik gorako pertsonen zuzendutakoa da eskola, eta bertan hainbat ikasgai landuko dituzte ikasleek

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Esperientzia Eskola hilaren 26an inauguratuko dute, udaletxeko areto nagusian ekitaldia eginez. Klaseak 50 urtetik gorako pertsonen zuzendurik daude, eta ez da alde aurretik titulaziorik behar eskolan izena emateko. Bertan hainbat ikasgai landuko dituzte: literatura, coaching, musikaren historia, filosofia, bioetika, psikologia...

Klaseak astelehenera eta ostegunetan izango dira, 10:00etatik 12:00etara. Orain hasi eta ekaina amaieran amaituko dira. Izena emateko bi zenbakitaratu deitu daiteke: 943 22 46 43 eta 646 098 753. Matrikulak 50 euro balio du.

Ura aurreztearen beharraz

Tolosako Udalak Uraren Munduko Eguna baliatu du herritarrei informazioa eta aholkuak emateko

E. Maiz

Uraren Munduko Eguna dela eta, Tolosako Udalak postua jarri zuen atzo Trianguloa plazan. Bertatik pasa ziren herritarrei, uraren kontsumoari dagozkion datu eta aholkuak eman zizkieten.

Herritar bakoitzak, uraren erabilera arrazoizkoa eta jasagarria izatea sustatzen dituzten konpromiso batzuk onartu zituen: dutxa hartu bainua hartu ordez; eskuak edo hortzak garbitzerakoan iturria itxi; arropa edo on-tzi garbigailua beteta daudenean jarri; ura aurrezteko gailuak erabili; ez utzi iturria irekita ur freskoa irten arte, hozkailuan izan ur



Jende askok jaso zuen informazioa, Trianguloa plazan. HITZA

botila bat... Konpromisoen orria sinatu zutenek, etxeko iturrirako zurrusta haustekoa jaso zuten.

Honez gain, bertako produktuekin osatutako saski bat zozketatu zuten. Horretarako, tolosar bakoitzak egunean zenbat litro ur gastatzen dituen asmatu behar izan zuten. Urteak urtera kontsumoa gutxitzen badao ere, tolosar

batek 119,6 litro ur gastatzen ditu egunean. Esaterako, 2007. urtean, 157,2 litro izan ziren, eta 2009. urtean 124,7 litro gastatu zituen tolosar bakoitzak. Saria, Edurne Ibarria tolosararentzat izan zen. Ekimen horrekin ura aurrezteak duen garrantzia nabarmendu nahi izan zuten.

● tolosa@hitza.info

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Etxebizitza.** Tolosako Korreo kalean, 67m²-ko etxebizitza salgai. Egoera onean dago; berri-ritua dago eta igogailua dauka. Interesatuek deitu 653 708836 zenbakira.

■ **Etxebizitzak.** Zaldibian etxebizitza berriak martxan. 169.500 eurotik aurrera, garajea eta trastelekua barne. Inte-

resatuek deitu 669 82 7096 zenbakira.

LANA

■ **Garbitzailea.** Orduka lan egiteko, esperientziadun pertsonak bere burua eskaintzen du, etxeak, tabernak, sukaldeak, eta abar garbitzeko. Autoa ere badauka. Interesatuek deitu 699 599129 zenbakira.



2011ko herriko jaietan sortu zen gazte asanbladaren ideia Zizurkil, kirol apustu honetan. HITZA

Zizurkilgo Txepetxa Gazte Asanblada aurkeztuko dute I. Gazte Egunean, bihar

Jaia gazteen arteko kirol erakustaldiarekin hasiko da, kontzertuekin amaitzeko

Asier Imaz Zizurkil

Txepetxa Gazte Asanbladak bere burua aurkeztuko du, bihar, Zizurkilgo I. Gazte Egunean. Jaia 11:30ean hasiko da, eta goizeko ordu txikiak arte iraungo du.

Gazte asanbladaren ideia 2011ko Zizurkilgo jaietan sortu zela diote Txepetxako kideek: «Herriko festetan gazteok zer bait egin behar genuela ikusten genuen, eta herri kirol apustua antolatzen genuen, goikoak behetako aurka. Hori izan zen abiapuntua».

Uda garaiak, ordea, ideia bere horretan utzi zuen lehen ustea. Ondoren, udaletxetik etorri zen saiakera: «Batzordeak sortzen hasi ziren, eta Gazteria batzordea osatzeko ahaleginak ez zuen arrakasta handiegirik izan».

Saiakera batek bestearekin egin zuen bat orduan, eta gazte asanblada jaietako apustuaren inguruan hasi zen gorpuzten: «Festetan gazte ugari mugitu gi-

↓ I. Gazte Eguna, Zizurkil Goian

HILAK 24, BIHAR

- **11:30ean.** Herriko gazteen arteko kirol erakustaldia.
- **Ondoren.** Txepetxa Gazte Asanbladaren aurkezpena, eta zozketa.
- **14:00etan.** Gazte bazkaria egingo dute.
- **Ondoren.** Jolasak.
- **18:30ean.** Bertso poteoa.

nela ikusi genuen, eta azaro bukaeran afari merienda deitzea erabaki genuen. 40 lagun inguru elkartu ginen, eta hor hasi zen istorio guztia», diote Txepetxako kideek.

Abenduan antolatu zituzten lehen ekitaldiak, presoen aldeko Gabonetako kantaldiarekin bat eginaz eta euskal selekzioaren partidarako autobusa jarriaz, Villabonako Gazte Asanbladarekin batera. 2012arekin batera, urteko plangintza osatu zuten. Hor, Gazte Egunaren beharra agertu zen Txepetxako esanetan: «Herriko jaietatik aparte, ez da beste festa egunik egiten, eta zerbaiten beharra ikusten genuen. Gazte Eguna autofinantzaketan oinarritzen denez, egun hau aurrera

ateratzeko ekitaldiak antolatzeko hasi ginen, hainbat ekimen martxan jarriaz».

■ **19:30etik 21:00etara.** Gugak taldearen kontzertua.

■ **23:00etik aurrera.** Gugak eta Ingo al deu? taldeen kontzertua.

■ **Oharra:** Eguraldi txarra eginez gero, Zimitorioan ospatuko dira ekitaldiak. Eguraldi ona eginez gero, aldiz, Zizurkilgo I. Gazte Eguneko ekitaldiak plazan egingo dituzte.

Txepetxe Gazte Asanblada gaztetxerik gabeko asanblada da oraindik. Aurrera begira ez dute ezer baztertzen, baina oraindik ez dute ezer aurreikusten. Oraingoz, zentroko lokaletan elkartzen dira asteartero, 19:00etan. Bertan, 15-28 urte bitarteko gazteak elkartzen dira, eta ateak zabaltzeko dituztela diote.

Helburuen artean, harremanak zabaltzearena azpimarratu dute Txepetxa taldeko kideek: «Norberaren koadrilatik kanpo, beste gazteekin elkartzea eta eza-gutzea, eta ondoren, sortzen diren ekintzen bidez herria indarritzea».

→ Laburrak

Asvineneako II. Kabareta eta Poltsiko Lehiaketa

ADUNA » Musikaz, kolorez eta dibertsioz bete dute Asvinenean II. Kabareta, gaur 21:30etik aurrera. Sio-ren dantza tribala; Alegria Hermanas-en bakarrizketa; Iraitz eta Gastonen *Trape-gocentrismo*; Ane Mirenen *Bueltan kontortsioa*; eta Vane-saren *Fiebre* ikusteko aukera egongo da. Horrez gain, Asvine-neatik azaldu dutenez, VI. Antzerki Poltsikoko Lehiaketa izena emateko epea luzatzea erabaki dute, hilaren 29ra bitarte. Izena emateko 665 73 80 81 zenbakira deitu behar da. Emailaz, poltsiko2012@gmail.com edo asvineneako2012@gmail.com-en apuntatu daiteke.

Klarinete kontzertua Atxulondo kultur etxean

ZIZURKIL » Loatzeko musika eskolako ikasleek klarinete kontzertua eskainiko dute gaur, hilak 23, Atxulondo kultur etxean. Emanaldia 17:30ean hasiko da eta herritar guztiak bertara gonbidatu dituzte.

Sendabelarren ikastaroan izena emateko aukera

ANOETA » Sendabelarren ikastaroan izena emateko epea hilaren 30ean, larunbatean, amaituko dela jakinarazi du Anoetako Udalak. Zortzi saioko ikastaroa Amaia Bastarririk emango du, eta 65 euroko kostua dauka. Informazio gehiago edo izena emateko udaletxera joan behar da, goizez; arratsalde, aldiz, liburutegira edo kiroldegira joan behar da.

Herriko festak antolatzeko bilera, hilaren 28an

ANOETA » Jai batzordeak herriko festak antolatzeko bilera deialdia luzatu du, eta Anoeta-ko elkarte eta herritar guztiak parte hartzeko eskatu die. Batzarra hilaren 28an egingo dute udaletxean, 19:00etan.

Herrira bilgunea aurkeztuko dute Aljibean egingo den ekitaldian, bihar, 12:00etan

Argazki Rally-aren sari banaketa bihar egingo dute, 11:00etan; herriko presoek izendatu dute argazki onenaren saria

A. Imaz Amasa-Villabona

«Herrian hutsik diren aulkiak bertetzeko» helburuarekin sortu dute Herrira bilgunea Amasa-Villabonan. Aurkezpen ekitaldia bihar egingo dute Aljibean, 12:00etan. Herritar guztiak bertara gonbidatu dituzte «espazio eraginkor bat sortzeko asmoz». Euskal preso eta iheslariak etxeratze-lanean ariko da Herrira, eta mugimendu parte hartzaile eta zabalera eratu nahi dute. Larunbatean, bertan, erakusketa irekiko dute 11:00etan, eta 12:00etan, Argazki Rallyko irabazlearen izena esango dute. Ondoren, ekitaldia egingo dute. Epaimahaia herriko presoek osatu dute.

Erniobearen Euskal Astea Juantxo Agirre Mauleonekin hasiko da

A. Imaz

Ernioeaba ikastetxean Euskal Astea antolatu dute hilaren 26tik 30era. Astelehenean Juantxo Agirre Mauleonen hitzaldia eskainiko du 10:00etan. Amaiur gaiaren inguruan. 14:10ean, 3. mailakoak Mintzolaria joango dira Euskal mitologia gertutik ezagutzera, eta lehen mailakoak Zizurkilgo kultur etxean elkartuko dira, Kimetz Arana artzainarekin. Ekitaldiek asteartean, asteazkenean eta ostiralean izango dute jarraipena.

Izan zaitze **berrialaguna**

zure ziztada behar dugu

Berialaguna ekimena Tolosaldean sustatzen laguntzeko prest bazaude, **martxoaren 27an, asteartea, 19:30ean Tolosako kultur etxean** egingo dugun bilerara gonbidatzen zaitugu. Bilerara etorriko bazara, aurretik deitu **687 530258** telefono zenbakira edo bidali mezu elektronikoa tolosaldea@berrialaguna.tk helbidera.

Bertso-bazkaria

Martxoak 31, Larunbata Lizartzan

Lekua: Goikoetxea sagardotegia
Ordua: 14:00
Antolatzailea: Lizartzako Bertsozaleak
Bertsolariak: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña
Eskusoinua: Manolo Ibaguren

Izena emateko: Xabino 609 017 081

Zenbait mende atzera joan behar da, Albizturtik Santutxura bidean dagoen erromatar galtzadan. Santa Marina baselizarainoko bidean, Santutxuko bentaraino gidatuko du ibiltaria, Oria bailarako ikuspegi zoragarria heldu bitarte.

Oria bailara airetik begiratzea bezala

Itzea Urkizu

Santutxuko erromatar galtzada da joan etorriko ibilbide honen tartean, zubi lanak egiten dituen. Albizturko herrigunea baino lehenagotik abiatu, eta Argisaingo Santa Marina elizaraino iritsiko da bisitaria, tartean baso ederrak eta Aralarko mendilerroa parez pare ikusiz.

Abiatu eta segituan, Albizturko harraskara iritsiko da ibiltaria. Garai batean arropa garbitzen zuten lekuan, mendizaleen egarria asetzeko balio duen iturria dago gaur egun. Hemendik herriko elizara eta plazara iriste-ko, 100 metro inguru besterik ez dira egin behar.

Atari ederra du XVII. mende hasieran eraikitako Jasokundeko Andra Mari elizak, eta itxura barrokoa du. Antzinako eliza baten gainean altxa zuten eraikina, baina mendea amaitu baino lehen teitua erori zitzaionez, bereraki egin behar izan zuten. Alboan haurrentzako parkea ere badu, 1863. urtean Simon eta Francisco Labaien anaiek eraiki zuten iturriarekin.

Errepideari jarraituz, Nekora baserriaren parean, gaztainondo handi batek basoko atea zabalduko dio mendizaleari. Garai batean Xabier eta Lolola lotzen zituen erlijio bideak, mendeetan zehar biziraun du bertan. Erromatar galtzada edo Santutxuko galtzada izenez ezaguna da bidexka, eta Beondegiko haizuloetan egon ziren asentamenduen aztarnak, galtzada aspaldidanik hor dagoe-la adierazten dute. Artzainek ere



Murumendiren babesean daude Argisain auzoko Santa Marina baseliza eta Santa Maria Haundi baserria. I. URKIZU

sarri erabili izan omen zuten bidea, eta Nafarroatik Azpeitiko zerenketara ere, bertatik eramaten omen zituzten zenenak. Gaur egun, galtzadaren 1.500 metro geratzen dira, eta Santa Marinara bidean, pagoak, haritzak, gaztainondoak nahiz lizarrak lagun izango ditu basoan, ibiltariak.

Zuhaitz artetik, ibilbideko zatirik aldatuena atzean utzi, eta pista batera iritsiko da bidea; zuzen jarraituz gero, basora sartuko da berriro. Metro gutxi batzuk aurrerago, Bidegoango errepidea gurutzatuko zaio ibiltariari, eta bertan ikusiko du Santutxuko benta. Azpeitirako nahiz Beizamarako bidegurutzeta bentaren parean dago, eta bertakoek Sorginzulo deitzen diote azpian dagoen baso sakonari. Kondairak dioenez, bertan sortu zen izotza; horrela soilik ematen diote azalpena, udan ere bertan egiten duen temperatura hotzari.

Oria bailararen begiratokira
Santutxutik Santa Marinarainoko bidea errepideari jarraituz egin behar da.

2.000 metro inguruko tartean, belaze lauez nahiz zuhaizti ederrrez gozatzeko aukera izango da. Donejakue bidea ere, bertatik pasatzen da.

Santa Marinara iritsi aurreko maldatxo aigo, eta bertan aurkituko du ibiltariak, pasieraren altxorretako bat: Oria bailararen begiratoki ederra. Behelainoak kotoia dirudi han goitik, eta Txin-

Erromatar garaiko galtzada Xabierretik Loiolarako bidea zen duela hainbat mende

Santa Marina Haundi baserria erromesen ospitale izan zen garai batean

dokiko tontorra nahiz Aralarko mendilerroa ere parez pare gertuko zaizkio mendizaleari.

300 metroko aldapatxo jaitsi, eta Santa Marinako baselizara iritsiko da bidea, atzean Murumendi zaintzaile duela. Itxura erromanikoa du, eta XII-XIII. mendeetako atea han dago oraindik. Elizak alboan du garai batean erromesen ospitalea izan zen Santa Marina Handi baserria ere. Uztailaren 18an ospatzen dituzte auzoko jaiak, eta urte osoan zehar ere bazkaltzera joateko aukera bada, hango jatetxera.
• alegaldea@hitza.info



Txindoki eta Oriako bailara ikus daitezke bideko begiratokitik. I. URKIZU



Erromatar galtzada basoaren erdi-erdetik pasatzen da. I. URKIZU



DATUAK

- **Luzera.** 7.500 metro.
- **Ezaugarriak.** Joan-etorria.
- **Hurbilketa.** Autoz joan behar da Abaltzisketara.
- **Hasiera-bukaera.** Albizturko Segore-etxeberrijatetxearen aparkalekuan.
- **Zailtasun maila.** Malda errazak daude basoan, eta bidea erraza eta laua da baselizarainoko errepidean.
- **Azalpenak.** Oria bailararen ikuspegi zoragarria, eta historia duten eraikinak.
- **Interesguneak.** Naturgunea. Argisaingo Santa Marina eliza, eta Santa Marina Haundi baserria.

SANTUTXO

TABERNA

etorri bisitatzera!

Aizkorri txiki bailara ♦ 943 65 17 96

SEGRE

ETXE BERRI





SANTA MARINA

Tel.: 943 58 09 76 - Mugikorra 610 460 751

✉ **Gutuna**

Esker ona omenaldiagatik

Sekula ahaztuko ez dugun eguna izan zen joan den martxoaren 11. Ohore handia da guretzat Aiztondo Klasikoa Patxi Alkorta Memoriala izendatzea aurrerantzean. Aitari egindako omenaldia handia izango zelakoan geunden, baina etxe aurrean eta sagardotegian bizitakoak hamaika bider gainditu zuen espere genuena.

Omenaldia benetan hunkigarria, polita eta txalotzeko modukoa izan zen. Lan bikaina antolatzaileek egindakoa. Mila esker hau guztia antolatzen aritu zireten guztioi: Pepo, Karlis, Peru, Aiztondo Klasikoa batzordeko kide guztiei...

Baita honako hauei ere: gurasoen etxe aurrean eta sagardotegian bildu zireten guztioi; gurasoen koadrilakoei eta lagunei; Oinkari dantza taldeari, Eneko Artega eta Iñaki Lizasori; Karlis eta Maxariori argazki-proiekzio hunkigarriagatik; Behar Zana Elkarteari aita Ohorezko Bazkide izendatzeagatik; Irrintzi elkarteari; Benta Aldeako Unai

eta bere familiari; Mapfreko, Miriam eta Janireri; Mujika, Cabes-tany, Lejarreta, Olano, Zubillaga, Txitxi, Aberasturi, Izquierdo, Neira, Cuevas, Gorostidi, Rigó eta baita Angel eta Txemari ere. X. Usabiaga, Urraburu, Dani, Lezeta, Truebari...; Mendiburu, Larrayoz, Miner, Peke, Imaz, Almandoz, Soto, Paco Etxeondo, Egibar, Asti, Arrieta, Ugarte, Erentxun, Sanz, Ginerri... Garai batean Zizurkilgo Danena kirol elkartearen aritu ziren Irazu, Zaldua, P. Usabiaga, azaroan hil zen J. R. Usabiagari... Garindarrei... Gogoan dugun Peli Egañari; aitik hainbeste estimatzen zuten Juan Querejeta medikuari bihotz-bihotzez, eta Mutio eta Doroteori; bertsolariari, txistekontalariari eta hain gogoko zuten Incansables txarangari, eta, azkenik, mila esker gurekin bildu nahi eta ezin izan zenuten guztioi.

Inor ahazturik utzi badugu, nahi gabe izan da, eta hari ere gure eskerrik beroenak.

■ **Laida, Kontxi eta Maria.**

Emakumeen afaria egingo dute bihar

Abaetxe jatetxean 70 emakume elkartzeko dira; ondoren, dantzarako La Jodedera taldea izango dute

E. Maiz Tolosa

Azken urteetan bezala, emakumeek egiten duten lana goraiatu nahian, afari berezia antolatuko dute Bedaio. Herriko emakumeak elkartzeko dira, eta dagoeneko 70ek eman dute izena.

Afariaren ondoren, musika jar-tzea egoki ikusi dute antolatzaileek, eta Tolosatik La Jodedera tal-

dea gerturatuko da Abaetxe jatetxera. Munduko erritmoak dantzatzeko aukera izango dute.

Hau horrela izanda, aurten, gizonzkoek ere Artubi elkartearen afaritzo bat egiteko proposamena jaso dute. Ideia ona iruditu zitzaion, eta behin afariak bukatuta, gizon zein emakume, bakoitzak nahi duenarekin dantzan egiteko aukera izango dute.

Afariaren aurretik, ordea, giroa berotze aldera, triki-poteoa egingo dute, elkarte eta Abaetxe artean.

Eguraldiak laguntzea baino ez zaie falta bedaiotarrei. Lagunarte ederrarekin gozatzeko aukera izango dute behintzat.



laz ere jende asko elkartzeko dira Bedaio jatetxean afartzeko. HITZA



Imanol Mendizabal eta Aitor Arraiza ikaztegiatarrek diskoa eta pisua jaurtitzen dituzte. E. MAIZ

Aitor Arraiza eta Imanol Mendizabal ikaztegiatarrek diskoa jaurtitzen dute. Arraizak duela ia hiru urte kadeteen mailako Gipuzkoako errekorra jarri zuen; orain Mendizabalek hautsi dio ia hiru metro gehiago botata.

Diskoa jaurtiz, errekorrak eginez

Eneritz Maiz | ikaztegiata

Ez da ohiko kirola pisua edo diskoa jaurtitzeko. Futbola edo pilota aukeratu beharrean, Aitor Arraiza (Ikaztegieta, 1994) eta Imanol Mendizabal (Ikaztegieta, 1997) gazteek atletismoa aukeratu zuten. Zehazkiago esan da, diskoa jaurtitzeko da beraiek aukeratu duten kirola. Gustatu egiten zaie, eta ondo moldatzen dira. Biek ala biek kadeteen mailako Gipuzkoako errekorra jarria dute, eta gazteenak, aurten, herri-tarraren marka hautsi du.

Atletismoan hasi, eta kadeteen mailan egin zuten pisuaren eta diskoaren aldeko aukera. Hiru urteren aldea dute, eta biek onartu dute, diskoarekin hobeto moldatzen direla. «Hasieratik esan zidaten diskoa botatzeko bertute gehiago nituela, eta Imanoli ere, nahiz eta urte gutxiago daramatzan, berdina esan diote», azaldu du Aitor Arraizak. Kadete eta junior mailatan dabilta.

Pilotan ibili zen Arraiza atletismorako jauzia eman aurretik. Urtebetez utzita egon ondoren, herriko lagun batzuek egin zioten atletismorako gonbidapena: «Hasieratik garbi nuen mailu, disko edo pisujaurtiketa egingo nuela».

Mendizabalek, hiru urte daromatza: «Niri DBH1ean nengoela irakasleak esan zidan indar asko nuela, eta atletismoan apuntatzeko. Lehen bi urteetan korrika eta jaurtiketak egiten ibili nintzen eta azken urtean hasi naiz disko-

rekin eta pisuarekin», dio. Arraizak, diskoaren Gipuzkoako marka hautsi zuen, bi aldiz, 47, 65 metroan jaurtiz. Baina bere errekorra, bi urte eta erdira herri-tarra duen Imanol Mendizabalek hautsi dio. Lehen jaurtiketan gutxiagatik hobetu zuen Mendizabalek «20 zentimetro hobetu nuen lehenengoan, baina gero, 49 metro bota nuen eta azkenengoan 50,57



«Gipuzkoako marka Katalunian hautsi nuen, eta laugarren postuan geratu nintzen»

AITOR ARRAIZA
Disko jaurtitzalea

«Gipuzkoako errekorra 50,57an jarri dut, eta Euskadikoa zentimetro batera baino ez daukat»

IMANOL MENDIZABAL
Disko jaurtitzalea

metroara iritsi nintzen». «Ia hiru metro sartu dizkio nire errekorra-ri», gaineratu du Arraizak.

Euskadiko Txapelketan ere parte hartzen dute, eta momentu honetan, Mendizabalek Euskadiko marka zentimetro batera baino ez du. Arraizak gaineratu du, «hemendik udara bitartean beste hiru metro sartzeko gai da». Entrenamenduetan bikain dabil, baina txapelketetan erakutsi behar izaten da hori. Egun batean erakutsi behar izaten dute beraien abilezia, eta hiru jaurtiketa

egiten dituzte. Lehen zortzi postuetan sailkatuz gero, beste hiru jaurtiketa egin behar izaten dituzte. Pertsonaren pisuaren arabera, diskoaren kiloak aldatu egiten dira. Diskoaz gain, pisua ere botatzen dute.

Espainiako Txapelketetara ere joaten dira lehiatzera, eta hemen baino marka hobek egiten dituztela diote. Arraizak dioenez, «Gipuzkoako marka Katalunian hautsi nuen, eta laugarren postuan geratu nintzen». Mendizabalek, berriz, ekainean izango du Espainiako Txapelketa. Jende asko ezagutzeko aukera ematen die, eta esperientzia polita izaten dute. Aurreko bi asteetan, pisuko Espainiako Txapelketan izan dira, eta biek, kadete eta junior mailetan, 12. postua eskuratu dute.

Entrenamenduek ere pisua dute, eta gutxi gorabehera pare bat ordukoak izaten dituzte. Irail-ean hasten dira. Arraizak astean sei egunez entrenatzen du, eta Mendizabalek lau egunetan joan behar izaten du Berazubira. Bueltak ematea dute zailena, eta teknika eginarekin poderioz ikasten dela nabarmendu dute. Pista estaliko eta aire libreko txapelketak jokatzeko dituzte. Mendizabalek dioenez, «aitak entrenamenduetan ez galtzeko esaten dit».

Biek aho batez onartu dute ikasketak eta kirola primeran uzartzeko dituztela.

Gustura dabilta bi gazteak, eta ea errekorra hausten jarraitzen duten.



Birziklatutako beirarekin pultserak eta lepokoak egiten aritu ziren atzo, Ibarra plazaan. I.T.

Tolosaldeko Mankomunitateak beiraren gaikako bilketaren inguruko sentsibilizazioa bultzatzeko ekimena antolatu du; Villabonan, Iruran eta Ibarra izan eta gero, gaur, Alegian egongo da informazio puntua.

Ondo egiten ikasteko

Iñigo Terradillos Ibarra

Er-raza dirudien arren, ez dugu guztiz ongi egiten, eta hori ekidin asmoz, Tolosaldeko Mankomunitateak ECOVIDIO erakundearen laguntzarekin beiraren birziklatze kopurua igotzea eta birziklatzen dena kalitatez egitea helburu duen ekimena jarri du martxan. Villabonan eta Iruran izan dira informazio puntuarekin, eta atzo Ibarra txanda izan zen. Herriko plazan kokatu zuten, eta herritar ugari izan zuen beira birziklatzen badakien jakiteko aukera.

Parte hartzaileek paneletako jokoetan jolastu ziren lehendabizi. Birziklagarria den beira, bate-tik, eta ezin birzikla daitekeena, bestetik, bereizi behar dira jokoa. Hain zuen ere, bost objektu dira edukiontzi berdean ezin bota

ditzakegunak: edalontzia, portzelanazko katilua, platera, plastikozko boltsa eta sendagai bat. Aiala Ezeiza eta Mertxe Aizpuru informazio puntuko hezitzaileek diotenaren arabera, «huts egite asko egiten dituz jendeak, izan ere, edalontziak edo platerak, esaterako, beirarekin identifikatu ohi ditugu». Dena den, hori ez gertatzeko badute trukua hezitzaileek: «Beirarekin zalantzaren bat baduzu, zera pentsatu behar duzu, erosi zenuenean beterik ote zegoen; hau da, ura edo bestelako likidoren batez beterik badago, beira da eta edukiontzi berdera botako dugu birziklatzeko».

Bigarren jokia hondakina dagokion edukiontzian sartzean datza. Hezitzaileek diotenez, hemen ere beirarekin izan ohi dituzte zalantza gehien parte hartzaileek.

Zer den beira eta nora bota behar den ikasi eta gero, nola berre-

rabili daitekeen ikusteko aukera dago. Informazio puntuan birziklatutako beirarekin eginiko pultserak eta lepokoak egiteko materiala jarria dute nahi duen ororen eskura, etxera lezioa ikasita eta oparitxoarekin joateko. «Horrez gain, herritarrei birziklatzeko arrazoi bat ere eman nahi diegu, euren begiez ikusten baitute berrehabiltzen», diote.

100 lagun inguru, orain arte

Ibarra izan aurretik, Villabonan eta Iruran izan dira aste honetan. Bada, 100 lagun inguru igaro dira herri bakoitzean jarririkako mahaitik. «Gehienak gaztetxoak dira, baina guraso eta heldu asko ere animatzen dira jolas egitera», azaldu dute. Gaur Alegiako ikastetxean izango dira, 16:00etatik 19:00etara, eta aurrekoetan bezala, nahi duen orok parte hartu ahalko du.

Leitzako Mendibil taldeak Sartzaleta mendira irteera antolatu du

Martxoaren 31n egingo dute; martxoaren 28a baino lehen eman behar dute izena parte hartu nahi dutenek

Iñigo Terradillos Leitza

Mendibil mendi taldeak mendi irteera antolatu du datorren larunbaterako, hilaren 31rako. Lizarra inguruan kokaturiko Lokiz mendizerrako Sartzaleta (1.055 m) mendia igoko dute.

08:00etan irteerako dira Oialde paretik autobusez, Ganuzara iris-

teko. Lokizko Santiago ermitatik (942 m) igaroko dira, eta Sartzaleta gailurra igoko dute. Gailurreko ikuspegiak gozatu ostean, Ganuzara (590 m) itzuliko dira. Hiru ordu eta 30 minutu inguruko iraupena duen ibilbidea da, eta zailtasun maila errazekoa, familia guztiak egiteko modukoa. 14:30ak aldera Leitzara bueltatuko direla aurreikusi dute antolatzaileek.

Irteera honetan parte hartu nahi duenak martxoaren 28a baino lehen eman behar dute izena Leitzako Astiz edo Maimur liburudendetan edota mendibilaurra@hotmail.com helbidean. leitzaldea@hitza.info

→ Laburrak

Gazte festak antolatzeko bilera, igande honetan

IBARRA Ibarra Gazte Asanbladak bilerara deitu du igande honetarako, hilaren 25erako. Ibarra gazte guztiei zuzendua da bilera, eta 17:00etan Ibarra-ko Gaztetxearen kanpoaldera gerturatu behar dute parte hartu nahi dutenek. Gazte Festak izango dituzte hizpide.

Leitzako ONCEko saltzaileari lapurtu diote

LEITZA Iragan astelehenean lapurreta egin zuten Leitzan, ONCE itsuen elkartearen zoketaren loteriaren saltokian. Bertako saltzaileari egin zioten lapurreta, etxerako bidean zela, 21:30ak inguruan. Egundorretako zoketarako bildutako dirua zeraman poltsa batean, eta poltsa hori kendu zioten burua estalita zeramaten bi pertsonak. Diru kopurua handia zela adierazi du.

Bertsotako bazkaria antolatu dute Lizaso eta Egañarekin

LIZARTZA Urtero bezala, Lizartzako Bertsozaleek antolatuta, bertso bazkaria izango da martxoaren 31n. Lizartzako Goikoetxea sagardotegian izango da, 14:00etan, eta ohiko moduan, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña ariko dira bertsoetan. Eskusoinuarekin, berriz, Manolo Ibarra alaituko du giroa. Bazkarian parte hartu nahi duenak 609 01 70 81 (Xabino) zenbakira hots egin behar dute.

Zaldibian izango dira Alurreko dantzariak, bihar

IBARRA Alurr dantza taldeko dantzari gazteak Zaldibian ariko dira bihar, bertako plazan, 19:00etan. Urtero bezala, tradizioa galdu gabe, Zaldibiako Dantzari Txiki Egunaren bezperan ariko dira Alurreko dantzariak, ekimenaren antolatzailea den Iztueta dantza taldeko dantzariarekin. Oiarzungo Soinu Zahar eta Aurreko txapelketan parte hartu ondoren joango dira Zaldibiara ibarretarako.

● Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



MAURI IRURETAGOIENA GARTXOTENEA

Astegun buruzuri barrian joan haiz, saizik, presa baihu bezala, Ez al duk kontuan izan nolako hutsunea utzi duan gure artean?

Hire koadriña

ZARRITZ, 2012ko martxoaren 23a

Agenda Larunbatetik martxoak 24, egandik 13:00etan Zazpuko Dinerrean (pintaketa) (Sartekoa)



-ESKERTZA ETA MEZA-

BERNARDA GOROSTEGI ESNAL
andrea

Bere familiak asko eskertzen dizuete samin-agurra bidali zenuenean eta baita bere hiletara etorri zineten guztioi ere, eta gonbidatzen zaituztete bere arimaren alde egingo den mezara BIHAR LARUNBATA, arratsaldeko ZAZPIETAN, Tolosako SANTA MARIA parroki elizan.

Tolosa, 2012ko martxoaren 23an



GOIZA	OSKARRI
ARRATSALDEA	OSKARRI
BEROENA	19°
HOTZENA	9°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Larraul, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agenda

DEIALDIK

- **Tolosa.** Amalur jardunaldien barruan gaur, Javier Reverte 19:30ean, Topic zentroan, *Yukón: el río de la luz*.
- **Amezketza.** Mendi Astearren barruan gaur, 19:30ean bertso poteoa, eta bertso afaria, ondoren. Berez, Alex Txikonek hitzaldia eskaintzekoa zen, baina oraindik ez da Pakistanetik itzuli eta bertan behera utzi dute.
- **Tolosa.** Enrique Gonzalezek elikadurari buruzko hitzaldia eskainiko du gaur, 18:15ean, kultur etxeko areto nagusian. Hitzaldia eta gero jakiak izango dira dastatzeko, doan. Sarrera ere doakoa da.
- **Tolosa.** Krisi garaia ulertzen jakiteko eta hauetatik ateratzeko gakoak emateko hitzaldia gaur, 20:00etan, kultur etxean. Felix Rodriguez hezitzaile profesionalak eskainiko du hitzaldia.
- **Alegia.** Tolosaldeko Mankomunitateak antolatutako beira birziklatzeko kanpainaren barruan gaur, mahai informatibo jarriko dute herriko ikastetxean, 16:00etatik 19:00etara.

- **Tolosa.** Uraren eguna dela eta gaur, Samaniego ikastetxeko Haur Hezkuntzako eraikin bio-klimatikoa ezagutzeko bisita antolatu dute, 11:00etan.
- **Tolosa.** Hirukidderen Elkartasun Kanpainaren barruan bihar, Trianguloan pintxo pote izeneko ekimena egingo dute, 10:30etik 13:30ak arte. Jasotako dirua Brasilgo Barbacena hirira bidaliko dute, emakumezkoentzako harrera-etxe bat elikagaiak, botikak eta hezkuntza-materiala hornitzeko.
- **Tolosa.** Gainditzen Tolosaldeko eta Goierriko gorren elkarteak Donejakue bideari buruzko hitzaldia antolatu du gaurko. 12:00etan hasiko da solasaldia, kultur etxean.
- **Tolosa.** SOS Urme Lapurtuak taldearen Tolosaldea mailako bilera, bihar, 10:30ean. San Juan kaleko Iturriza elkarte. Auzi honek Asuncion, San Cosme eta San Juan kliniketan eragin zien guztiei egiten diete dei bilera azaltzeko.
- **Tolosa.** Braderie azoka bihar, 10:00etatik 20:30era. Dendek beren produktuak aterako dituzte Tolosako kaleetara eskaintza berezietan.

- **Tolosa.** Herrira Eguna, bihar: 11:00etan banderolak erosteko aukera izango da Trianguloa plazan; 12:00etan manifestazioa egingo dute Trianguloatik; 14:00etan bertso bazkaria izango da plaza Berrian; 18:00etan trikitilariekin kalejira Euskal Herria plazara eta Topic zentroan Patxi Saizen saioa; 17:30ean trikipoteoa Alde Zaharrea; eta 22:00etan kontzertuak plaza Berrian: Desordutan, Glaukoma Sound System eta Laket.
- **Zizurkil.** Txepetxa Eguna antolatu du biharko sortu berri den Txepetxa Gazte Asanbladak. 11:30ean herriko gazteen arteko kirol erakustaldia eta ondoren, gazte asanbladaren aurkezpena eta boletoen zozketa; 14:00etan gazte bazkaria eta ondoren, jolasak; 18:30ean bertso poteoa; 19:30etik 21:00etara Gugaz taldearen emanaldia; eta 23:00etatik aurrera berriz ere, Gugaz taldea, eta gero Ingo al deu? taldearen kontzertua.
- **Ibarra.** Lodosako ikastola laguntzeko bihar, 16:30ean gazte-txoentzako jolasak, plazan, eta 18:00etan talo jatea.
- **Ibarra.** Langostino moto elkarteak irteera antolatu du

iganderako, hilak 25. Goiz pasa joango dira eta 09:30ean irten-go dira herriko plazatik Betelu aldera.

- **Tolosa.** Tolosa Kup-eko bilera astelehenean, hilak 26, 18:00etan kultur etxean.

ANTZERKIA

- **Tolosa.** *Hil arte bizi* antzezla, gaur, 20:30ean Leidor aretoan. Iker Galarza, Joseba Usabiega eta Sara Cozar dira antzezleak. Sarrerak www.kutxa.net helbidean eskuratu daitezke 10 euroren truke.

MUSIKA

- **Zizurkil.** Loatzo musika eskolako ikasleek klarinete emanaldia eskainiko dute gaur, 19:00etan, Atxulondo kultur etxean.
- **Tolosa.** Bonberenean gaur, Xabi ta Petti 22:30etik aurrera, eta bihar, ordu berean, Matxura.
- **Leitza.** Atekarok jaialdia, bihar: 18:30ean kalejira egingo dute Gaztetxetik kiroldegira, eta kontzertuak 21:00etan hasiko dira. Akatu, Kaotiko, Governors, Ze Esateki!, Tximeleta, DJ Bull,

121 Crew, Goienetxe Anaia eta Raperos de Emaus entzuteko aukera izango da.

- **Irura.** Loatzo musika eskolako ikasleek astelehenean perkusio eta saxo emanaldia eskainiko dute 18:30ean, musika eskolan.

ZINEMA

- **Tolosa.** Leidorren bihar, *Aita, zontzia naiz*, 17:00etan, haurrentzako filma euskaraz, eta 19:30ean eta 22:30ean, *The artist*. Igandean *Aita, zontzia naiz*, 17:00etan, eta 19:30ean eta 22:00etan, *The artist*. Eta astelehenean, ikuslearen eguna, *The artist*, 20:30ean.
- **Villabona.** Gurea zinemari bihar 19:30ean eta 22:15ean; igandean 17:00etan eta 19:30ean; eta astelehenean, ikuslearen eguna, 21:30ean *War Horse* filma.

KIROLA

- **Villabona.** Aizkardi elkarteak 44. Aizkardi Ibilaldia egingo du igandean. Ibilaldi luzeoak 07:00etan aterako dira Villabonako elizaren ondotik, eta ibilaldi motzekoak, 08:00etan.

Agurrak



Zorionak July!
July Etxarri (Leitza). Ondoa pasa eguna eta txintxo ibili! Muxu bat ikaztegietatik.

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

●● agurrak

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

BIHAR

- **Tolosa.** Azpiroz, L. Amarotz auzoa, 9.

- Telefonoa: 943 67 51 18.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

ETZI

- **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.
- **Lekunberri.** Mendia, M.I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Leitza.** Campos, M. Z. Elbarren, 52. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



saridunak

HITZAK harpidedunentzat **2 sarrera pare** ditu

Antzezla

- **María Anjeles Ezeiza (Tolosa)**
- **Malentxo Arrospide (Lizartza)**

Martxoak 23 • Ostirala
20:30ean
Tolosako Leidorren



sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare** du

Kontzertua Patxi Saiz

- **Xabino Jauregi (Tolosa)**

Martxoak 24 • Larunbata
18:30ean
Tolosako Topic-en



sarrerak

HITZAK harpidedunentzat **sarrera pare** du

LAGUN ARO GBC Real Madrid

saskibaloitako partida

- **Agustin Amiano (Altzo)**

Martxoak 25 • Igandea
18:00etan
Donostiako Ilunben



sarrerak HITZAKo egoitzan